

KARRERA PROFESIONALAK

Kutxabank-eko I. Hitzarmena martxan jarri zenetik urtebete baino gehiago pasa denean, badira zuzendari, zuzendariorde eta espezializatuaren karrera profesionalekin erlazionaturiko zenbait kontzeptu kontutan hartu beharrekoak.

Zuzendari/zuzendariordeak

Urtarrilean bulegoetako zuzendari eta zuzendariordeen garapen profesionaleko sistema bateratu zela urtebete da, eta Kutxabank-eko bulegoen lehenengo klasifikazioa egin zela ere bai.

Zuzendari edo zuzendariordeei dagokien **postu osagarria izendapenetik urtebete igaro ondoren** (edo sistema aldaketa dela-eta izendapen berri gisa hartu zenean aldaketa hori) **hasten da ko-bratzen**.

Txikizkako bulegoen 2015ko sailkapena ez da argitaratu oraindik. Hori gertatu arte, aurreko sailkapena izango da indarrean. Eguneratzen denean, dagozkion osagarriak urtariletik eguneratuko dira (bere taldean kontsolidatu gabe dauden bulegoen kasuan bezala, adibidez).

Espezializatuak

Kutxa jatorria duten eta K11 mailaz azpitik dauden langileen kasuan, urtarilean izan zen **antzinatasunaren likidazioak** eta XI-K11 mailararte **dagozkien igoerek garapen-mailan aldaketa eragin diezaiakete**.

"aintzinatasunaren likidazioak eta kutxakoen denboraren arabera igoerek garapen mailaren aldaketa eragin dezakete"

Kudeatzaile edo teknikari espezializatu bakoitzari dagokion garapen-maila, bere soldataren arabera, honako hau izan daiteke:

Soldata maila		≥ IX Maila (2015: 43.182,30€)	A Espezializatua
IX. maila azpitik dauden espezializatuaren kasuan, garapen maila egokia esleitzeko soldata mailaz gain aintzinekotasuna ("gehikuntza gradualak") ere kontutan hartu behar da.	Soldata maila + gehikuntza gradualak	≥ IX Maila (2015: 43.182,30€)	A Espezializatua
	Soldata maila + gehikuntza gradualak	≥ X Maila (2015: 39.758,88€)	B Espezializatua
	Soldata maila + gehikuntza gradualak	< X Maila (2015: 39.758,88€)	C Espezializatua

LAN AKORDIOAREN JARRAIPEN KOMISIOA

Otsailak 10ean lan-akordioaren jarraipen komisioa izan zen, mugageneratuta egon arren, bertan jasotzen diren zenbait ordainek indarrean jarraitzen baitute. Hona hemen adostutakoa:


1 - Lekualdatutako lankideek destinoaren arabera **etxebizitza alokairuengatik jasotzen duten laguntza** urtero KPI-a kontutan hartuz eguneratzen da. 2014ko KPI negatiboa izan denez (% -0,7), laguntza murriztu beharko litzateke.

2015ean kontzeptu horrengatik dagozkien **laguntzei murrizketa hori ez ezartzea erabaki da**, laguntza hauek indarrean dauden bitartean eman litezkeen indize honen gorakadetan konpentsatzeko aukera gordetzen duelarik enpresak.

2 - Lekualdatze hauekin erlazionatuta, batzuk **alokairuentzako laguntzaren ordezkari kilometraje-laguntza** jasotzea aukeratu zuten, egunero egiten baitzuten desplazamendua. Egoera ezberdinak zirela-eta, hauetako laguntza batzuk 4 urte baino epe laburragorako zeuden mugatuta, alokairuentzako epea zelarik 4 urteko hau.

Epe guztiak goranzkoan berdintzea erabaki da, lekualdatzetik 4 urtean zehar jasoko direlarik laguntza hauek.

HAUTESKUNDE SINDIKALAK



Kantabria: aurreko prozesuaren ezeztatzearen ondoren, azkenean egin dira. **Bertan, hauteskunde-mahaia (beste bi sindikatu parte-hartzaileen "aholkuekin") PK-ko zerrenda balio-gabetzea adostu zuen, zuzenbidearen arabera ez zela argudiatuz, beste hauteskunde eremu batzuetan horietako talderen bati zerrenda "sustagarria" onartu zitzaionean. Emaizak honako hauek izan dira: 3 ordezkari CC00-k eta 2 ALE-k.**

Epaitegietan daude Leon (aukeratua izan zen ordezkaria gurea den arren, PK ez da deitua izan), Valladolid, Zaragoza eta Madrid.

Erreza da. Ekologikoa da. Zuzena da. Eta gainera egin dugu lehen ere.

boto elektronikoa orain

pk voto electrónico ya boto elektronikoa orain

Es sencillo. Es ecológico. Es seguro. Y encima ya lo hemos hecho.

voto electrónico ya

Iritsiko al da egunen batean Kutxabank osorako Enpresa Batzorde bakarra edukitzea onartuko duen Hauteskunde Legerik?



Gipuzkoa: Jose Montero (Monti) - Carlos Elorza - Aitor Belosillo - Koldo Sulibarria - Iker Antolin - Arturo Llorente - Amaia Murguiondo - Iñaki Zubimendi - Borja García - Joserra Tolosa - Naiara Ugarte - Iñaki Zabala - Olatz Legarda-Ereño - Iker Ozteta - Rubén Santos
Araba: Diego Barrero - Chema Fdez de las Heras - Julio Hidalgo
Barcelona: Jordi Varela - Eduardo Azurza - Cristina Forcadell - Nelly Carrión - Ana Ortega
Burgos: Iván Pérez
Pontevedra: Anxo Giménez
León: David Astiarraga
Cantabria: Nieves Cobo
Zaragoza: Miguel Gómez